

AZKEN TANTA ISURI ARTE

Alexandria, Egipto, K.a. 48. urtea.

Klepsidra bat (ur-erloju) = 20 minutu

Klepsidra erdi = 10 minutu

Klepsidra laurden = 5 minutu

...

Papiro hau norbaitek aurkitzen badu, denbora amaitu zaidala esan nahi du, eta ez dudala lortu alde egitea. Baina nire helburua lortu dudala ere adierazten du, eta beraz, denak zerbaitetarako balio duela. Hau da nire historia:

Klepsidra laurden

Denbora agortzen ari zait. Zaratak entzuten ditut kanpoan, oihuak. Arriskuan nago. Badakit une oro gehiago gerturatzen ari dela, eta alde egin beharko nukeela, baina ezin dut. Ez oraindik. Ezin nau inork harrapatu. Eskuak izerditan ditut. Mahai gaineko klepsidrari erreparatu diot: laurden bat besterik ez da gelditzen isurtzeko. Denbora hori amaitzean alde egin beharko dut. Beranduagora arte gelditzen banaiz, harrapatu egingo nau, eta inoiz ez naute aurkituko.

Egun berean goizago

Kalera irten naiz, zer da iskanbila hau? Mundu guztia alde batetik bestera ari da korrika, kaosa da nagusi Alexandriako kaleetan. Ohikoa baino gehiago. Egiptoko gerra zibila hasi denetik ez dago lasai bizitzerik. Badirudi Julio Zesarrek portuko itsasontziei su eman diela, Ptolomeo XVIII-ren ontziak hirian sartu ahal ez izateko. Ez zirudien ideia txarra, sua hirian zabaltzen hasi den arte.

Orain etsai gorria une oro aurrean duen guztia suntsitzen, eta modu arriskutsuan hiriaren erdigunera hurbiltzen ari da. Baina nik gauza bakarrean pentsa dezaket; Alexandriako liburutegia. Sua bertara iristen bada, idatzi eta jakintza guztiak betiko galduko dira. Ezin dut hori onartu. Beharrezkoa egingo dut bertakoa berreskuratu, leku seguru batera eraman eta salbu daudela bermatzeko.

Eraikinera hurreratu naiz, nire oinek baimentzen didaten abiadura azkarrenean. Hainbeste alditan egin dudana bezala aterantz gerturatu naiz, sartzeko asmoz, baina gizon batek bidea itxi dit.

— Zertan ari zarela uste duzu? Emakumeak ezin dira hona sartu. Gizonezkoen lanak dira zientzia eta ezagutza— oihukatu dit begirada serioko gizonak — Alde hemendik!

— Baina... barruko idatziak berreskuratu behar dira, sua iritsi baino lehen! Gainera, ni milaka aldiz egon naiz liburutegian. Orduak eman ditut nire aitarekin hemen! — erantzun diot hari, sartzeko esperantzarik galdu gabe.

— Berdin dit, zu bakarrik ezin zara sartu! Ezjakin hutsa zara; idatziak salbu daude hemen. Eskertu aitak konpainia egiten utzi izan dizula noizean behin, asko da zu bezalako emakume batentzat. Nik behintzat ez nion nire lanera gerturatzeko utziko gizona ez den bati, ea bere ezjakintasunak zorte txarrez beteko duen nire lan sutsua!

Aitarekin hainbeste egun bertan igaro ondoren ezin dut sinetsi ezezeko hau. Emakume izatearen arrazoi hutsagatik. Ez dut denborarik aitaren bila laguntza eske joateko, oraintxe bertan sartu behar naiz! Beraz, berak hitz egiten, eta emakumeei buruz gaizki-esaka jarraitzen duen bitartean, nik sarrera alternatiboak bilatzeari ekin diot; argi dago gizon honek ez didala sartzen utziko.

Atzeko aldean, pareta batean, ate ezkutu bat dagoela gogoratu dut. Aitak kontatu zidan haren existentziaz txikiagoa nintzenean; larrialdietarako eraiki zuten. Eta oraingoa, larrialdi bat da. Bertara hurbildu eta liburutegian sartu naiz, inork ikusi gabe. Behin barruan egonda, ate guztiak barrutik itxi ditut; inor ezingo da bertara sartu. Kanpoan ahots bat entzun dut, oihuka; gizonak liburutegian sartu naizela daki, baina ate guztiak blokeatu ditudanez, kanpoan itxaron beharko dit.

Gauza gehiegi ditut buruan bueltaka, eta ez dut denborarik galtzeko. Nolabait antolatu behar ditut pentsamenduak. Mahai gaineko klepsidrari erreparatu diot; hau erabiliko dut gelditzen zaidan denbora neurtzeko. Beste ontzi batetik bertara ura isuri dut, eta goiko ontziari estalkia kendu diot, zulotik ura beheko ontzira erortzeko. Atzerako kontaketa hasi da.

Klepsidra bat ihes egiteko

Ingurura begiratzen dut, ur-erlojua osatzen duen goiko ontzia behekoa husten denean denbora amaitu zaidala esan nahiko du. Azken tanta isurtzen denean alde egin beharko dut, edo beranduegi izango da niretzat. Baina lehenago irteten banaiz kanpoko gizonak harrapatu egingo naute. Bitartean ahalik eta idatzi gehien batuko ditut. Azken tanta isuri arte.

Apal guztiei begira ari naiz, papiro garrantzitsuenak identifikatu eta bertatik eramateko. Lurrean dagoen egurrezko kaxa bat hustu dut, bertan idatziak gordetzen joateko. Beheko pisuko gela guztietan barrena ibili naiz, gai bakoitzeko jakintza adierazgarrienak jasotzen, eta geroz eta esfortzu handiagoz bultzatzen dudana kaxan gordetzen.

Ongi aukeratu behar ditut papiroak; nire gain dago hemengo garrantzitsuenak salbatzearen ardura. Ezin dut hanka sartu. Ez orain, liburutegira sartzea lortu dudanean. Ez nau ezerk geldituko nire helburua bete arte. Nire bizitza arriskuan jarri behar badut ere.

Klepsidra hirulaurden

Papiroak banan-banan begiratzen ditudan bitartean txikitako oroitzapenak ditut buruan. Nork esango luke orain dela bost hilabete, orain ni hemen egongo nintzela, eta Alexandriako liburutegiaren etorkizuna nire esku egongo zela!

Aitak irakatsitako guztia dut gogoan. Izkribua denez, jakintza askotara du sarbidea, eta txikitatik eraman nau ni alboan, beragandik dena ikasteko. Idazten eta irakurtzen dakien pribilegiatu gutxietako bat naiz, are gehiago emakume izanda. Nire aitaren eskuzabaltasunari eta amaren burugogortasunari esker nago orain hemen, eta ezin dut aukera alferrik galdu.

“Entzun ongi, Seshat; ezin zara besteek zuri lekua emateari zain bizi, zu izan behar zara zure bizitzaren gidari, eta zure bide propioa ireki behar duzu”. Esan ohi zidan aitak, bidegabekeriez kexatzen nintzen aldiro. “Gutxirako balio du kexaka ibiltzeak; zerbait gustatzen ez bazaizu, zuk eman hori aldatzeko pausua”.

Arrazoi guztia duela deritzot, eta aholku horiek lelo gisa eraman ditut bizitza osoan zehar. Eta, aholku berberak izan dira honaino ekarri nautenak. Zera esaten diot neure buruari: “Ea, Seshat, puntu honetara arte iritsi ondoren, ezin duzu amore eman. Zure gurasoei, eta, nola ez, zeure buruari ere zor diozu. Argi utzi zertarako zaren gai, eta noraino iristeko gai zaren ardura dizunagatik!”.

Klepsidra erdi

Indarberrituta, papiro gehiago biltzeari ekiten diot. Hurrengo gelara pasatu aurretik, klepsidra dagoen lekura itzuli eta hari erreparatu diot; erdia pasa da dagoeneko! Denborak gutxinaka, baina modu konstantean egiten dit ihes eskuen artetik, basamortuko area balitz bezala. Ez du ematen inoiz agortuko denik, gabe gelditzen zaren arte. Une bakoitzak amaigabea dirudi, baina aldi berean ziztu bizian igarotzen da, berriz inoiz ez itzultzeko.

Ezin dut sinetsi gertatzen ari dena. Dena amets bat izatea nahiko nuke, eta bihar goizean nire ohean esnatu, amets arraro bat bizi izanaren pertzepzioarekin. Amesgaizto hau behingoz amaitzea nahi dut, eta betiko bizitzara itzultzea. Orain arte ez nintzen konturatzen izan ditudan pribilegioez; nahiz eta emakumezko izan, eta faraoiaren esanei jarraitu behar izan, bizitza duin bat izan dut beti. Irakurtzen eta idazten ikasi ahal izan dut, eta beste gaiei buruzko oinarritzko jakintzetara sarbidea erraztu didaten pertsoenez inguratu naiz. Hain desberdina izan litekeen nire bizitza, leku desberdinean edo modu desberdin batean jaio izan banintz!

Pentsamendu hauek buruan darabiltzadala, mapak gordetzen diren sailera iritsi naiz. Hemen lurralde bakoitzeko irudikapen bat jaso dut, gainerako gaietan egin dudak bezala. Papiroak bertan gordetzen ditudan ahala, nire kaxa betetzen ari da. Gelditzen zaidan denbora urriaren isla zuzena da. Biak, denbora eta kaxan gelditzen zaidan lekua ongi kudeatu behar ditut, hemendik bizirik eta idatziekin irten nahi badut.

Klepsidra laurden

Denbora agortzen ari zait. Zaratak entzuten ditut kanpoan, oihuak. Arriskuan nago. Badakit une oro gehiago gerturatzen ari dela, eta alde egin beharko nukeela, baina ezin dut. Ez oraindik. Ezin nau inork harrapatu. Eskuak izerditan ditut. Mahai gainerako klepsidrari erreparatu diot: laurden bat besterik ez da gelditzen isurtzeko. Denbora hori amaitzean alde egin beharko dut. Beranduagora arte gelditzen banaiz, harrapatu egingo nau, eta inoiz ez naute aurkituko.

“Laurden bat besterik ez!” pentsatzen dut, ur-erlojuari erreparatzeaz bat. Arin ibili beharra dut, dena nire planen arabera irtetea nahi badut. Azkar batean gelditzen zaizkidan gelak aztertu ditut, azken papiroak jasotzeko. Badakit garrantzitsuak diren asko barruan geldituko direla, baina aukera bakarra dut, eta ezin naiz arriskatu dena galtzera.

Hainbeste aldiz egin dudan bezala, liburutegiko gelak zeharkatu ditut. Badakit hau azken aldia dela, eta inoiz ezingo naizela bertara berriro itzuli. Beraz, izkina bakoitza erretinan gorde nahi dut betiko, edonoiz oroitzapenen bidez une jakin honetara itzuli ahal izateko. Sarrerarantz gerturatu naiz, eta belarria atera itsatsi dut, kanpoko soinuak entzun ahal izateko. Oihuak dira nagusi Alexandriako kaleetan. Badakit kanpoan nire zain dagoen gizona alde egitear dagoela, ni harrapatzeko esperantzak galduta. Beraz, klepsidra eta egurrezko kaxa dauden gelara itzuli naiz, hemendik ihesi irteteko modu onenaren bila nabilen artean.

Bururatzen zaidan irteera posible bakarra sartu naizen ate ezkututik irtetea da. Klepsidrari azken aldiz begiratzen diot, sua iristear egongo da; jada berotasuna eta kea antzeman daitezke airean. Ur-erlojuko gaineko ontzian putzu txiki bat besterik ez da gelditzen; alde egin behar du al bait azkarren, edo suak harrapatuko nau.

Ate txikira hurbildu, eta zabaltzen saiatu naiz, baina... ezinezkoa da! Atea trabatuta dago! Ezin dut sinetsi, hau ezin zait niri gertatu. Hain gertu nengoen nire helburua lortzetik, eta garaipena eskuetatik kendu didate. Izerdiz betetako eskuekin gogor bultzatu dut atea, baina ez dago modurik. Imajinatu daitezkeen era guztietan egin dut saiakera: hanken laguntzaz, bizkarrarekin... Baina ate madarikatuak mugimendu txiki bat besterik ez du egiten. Kanpoaldeko airea arnastu dezaket, ateko zirrikitutik eskua atera, baina ezin dut hemendik alde egin; harrapatuta nago.

Oihuka hasi naiz, eskua atetik kanpo mugitzen dudan bitartean; ziur nago inguruan jendea ibiliko dela, baina iskanbila guztiaren artean ez dakit norbaitek entzungo nauen. Esperantzak galduta nituela, ahots bat entzun dut, atearen beste aldean.

— Kaixo! Hemen nago! — esan dit kanpoko ahotsak, nire esperantzak berpiztuz.

— Atea trabatuta dago! Ez dakit zer gertatu den, baina ezin naiz irten! — erantzun diot nik, nire egoera azalduz.

— Zuhaitz batek atea estali du, ez du uzten hau zabaltzen. Ez dut uste mugitu ahalko dudarik, oso pisutsua da— azaldu dit larri, berriz ere gelditzen zitzaidan itxaropen apurra guztiz desagerraraziz — Itxaron, laguntza bila joango naiz!

— Utzi, berdin dio. Ez dago denborarik niretzat. Baina egidazu azken mesede bat, arren eskatzen dizut; hartu kaxa hau, eta eraman Thotmes izkribuari. Esaiozu bere alabak bidaltzen diola... Eta asko maite ditudala bera eta ama. — esan diot malko artean, papiroak ateko zirrikitutik ateratzen ditudan artean.

— Ados! Zin egiten dizut, dena zuk esan bezala egingo dudala!

— Mila esker!

Azken hitz hauekin badakit dena bukatu dela, eta nire amaiera gertu dagoela. Ez dut sua itxaron besterik. Garra sarrera nagusira iritsi direla somatzen dut; azken uneak bizitzea

gelditzen zaidala onartu behar dut. Klepsidraren ondoan kokatu naiz. Azken ur-tantak beroarekin lurruntzen ari dira.

Baina, gaur hil behar banaiz, gehien gustatzen zaidana egiten joango naiz mundu honetatik; idazten. Papiro huts bat hartu dut, eta bertan gertatu zaidana idazten hasi naiz. Gaurko egunean zehar egin ditudan erokeria guztiak kontatu ditut, nire pentsamenduak, sentimenduak. Une oro izerdiak ikusmena lausotzen dit, eta idazlumak hatzen artetik ihes egiten ari zait. Kea arnasteak bere efektua sortzen ari da nigan, eta geroz eta zorabiatuago aurkitzen naiz. Nire azken esfortzuarekin eraikuntzako zorua osatzen duen harri bat altxatu dut, eta bertan nire eskutitza sartu dut. Norbaitek liburutegiko errautsak aztertzen baditu, agian papiroa aurkituko du, eta gaurko gertaera guztiak ulertuko ditu. Aukera oso gutxi daude hori gertatzeko, baina itxaropena da gelditzen zaidan bakarra, eta nire azken arnasarekin helduko diot.

Azken aldiz ingurura begiratu dut, hainbeste maite dudan liburutegia sutan ikusteko. Baina lasai noa hemendik. Badakit ahal izan dudan dena eta gehiago egin dudala leku hau salbatzeko, eta hemen geldituko naiz azken unera arte. Azken tanta isuri arte. Eta azken tanta horrekin batera itxi ditut begiak, betiko.